



## AGINDUA, OSASUN SAILBURUARENA, OSASUN PUBLIKOAREN EUSKAL INSTITUTUAREN ESTATUTUAK ONESTEN DITUEN DEKRETU-PROIETUAREN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA XEDATZEN DUENA

Xedapen orokor bat prestatuko du Osasun sailak Osasun Publikoaren

Euskal Institutuaren estatutuak onesteko, azaroaren 30eko Euskadiko Osasun Publikoaren 13/2023 Legearen azken xedapenetako bigarrenak xedatutakoari jarraikiz.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabakia dela-eta, xedapen arautzaile orokorrak izapidetzeko jarraibideak onesten baititu horrek, aurretiko kontsultaren izapidea egitea erabaki zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133.1. artikuluan xedatzen dena estaltzeko, testu juridiko arautzaile jakin bat onetsi aurretik herritarrekin elkarreraginean aritzeko izapidea egin behar baita.

Kontsultak alderdi hauek jaso behar ditu:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Hori dela eta, hogeiei egun balioduneko epea ezartzen da eraginpeko erakundeek, herritarrek eta entitateek egoki irizten dieten iradokizunak edo oharra aurkez ditzaten. Araua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Urriaren 29ko 319/2021 Dekretuak (Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

### EBAZTEN DUT:

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ  
Tel. 945 01 64 66 – Faxa: 945 01 93 01 – Helbide elektronikoa: servicios-san@ej-gv.es



*Lehenengoa.* - Osasun Publikoaren Euskal Institutuaren estatutuak onesteko xedapen orokor baten proiektuari aurretiko kontsultaren izapidea aplikatzea, hura prestatu aurretik.

*Bigarrena.* Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi badute, hogeit egun balioduneko epean helarazi ahalko dituzte Agindu honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Izpta: ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ

OSASUN SAILBURUA



## ERANSKINA:

### 1.- *Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:*

Dekretu-proiektu honen helburua da Osasun Publikoaren Euskal Institutuaren estatutuak onestea (azaroaren 30eko Euskadiko Osasun Publikoaren 13/2023 Legeak —aurrerantzean Osasun Publikoaren Legea— sortua).

Osasun Publikoaren Institutuaren helburua da Eusko Jaurlaritzan osasunaren gaineko eskumena duen sailari dagozkion ekintza, prestazio eta zerbitzuen multzoa osorik eskaintzea, horretarako Legeak esleitu dizkion zereginak gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak bateratuz.

Sortutako erakundearen helburua da osasunaren faktore erabakigarrietan ekitea, gaixotasun, lesio eta desgaitasunei aurrea hartzea eta pertsonen osasuna eta ongizatea babestea eta sustatzea, nola bakarka, hala kolektiboki. Lan-ildo hauek jorratuko dira horretarako:

**Osasuna zaintzea.** Biztanleriaren osasun-egoerarekin eta hura baldintzatzen duten faktoreekin zerikusia duen informazioa biltzeko, analizatzeko, interpretatzeko eta hedatzeko jarduerak. Osasun publikoaren arloko jarduerak oinarri sendoak izan ditzaten. Lan-ildo honetan funtsezko tresna da **Osasun Publikoko Zaintza Sarea**, erakunde guztien osasun-zaintzeko unitate eta zerbitzuek osatua. Gainera, zaintza eraginkorra izan dadin, **Osasun Publikoko Alerta eta Larrialdietarako Sistema** ere existituko da, erantzun bizkorra, jarraitua eta eraginkorra emateko pertsonen osasuna mehatxatu lezaketen egoera, arrisku zein gertaerei.

**Osasun-arazoen eta gaixotasunen prebentzioa eta haien faktore erabakigarrien gaineko jarduera**, eragile guztiek elkarrekin koordinatuta, ekitate-printzipioa aplikatuta, genero-ikuspegiz eta pertsonen bizitzako etapa guztiak aintzat hartuta, betiere talde zaurgarrienei arreta berezia eskainita.

Biztanleriaren osasuna babestearren, elikagaien segurtasuna eta ingurumen-osasuna zaintzea.

**Osasun publikoko laborategia**, osasun publikoaren alorreko analisi-beharren Euskadiko erreferentzia gisa.

**Osasuna sustatzea**, pertsonen eta talde sozialek beren gaitasunak garatu, nor bere osasuna kudeatzeko autonomia handitu eta hura taxutzen duten faktoreen gaineko kontrola sendotzearen.

**Adikzioen arreta integrala**, dela drogekiko menpekotasunena, dela portaera-adikzioena.

**Prestakuntza, ikerkuntza, berrikuntza eta ebaluazioa**, osasun publikoaren alorrean lan egiteko elementu estrategiko gisa.

## **2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna:**

2023ko abenduaren 12an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 13/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskadiko Osasun Publikoarena.

Osasun Publikoaren Legearen 50. artikuluan xedatutakoaren bidez sortu zen Osasun Publikoaren Euskal Institutua, Eusko Jaurlaritzan osasunaren gaineko eskumena duen sailari dagozkion ekintza, prestazio eta zerbitzuen multzoa osorik eskaintzearen.

Erakunde administratibo autonomoa da, Eusko Jaurlaritzan osasunaren gaineko eskumena duen sailari atxikia, eta nortasun juridiko propioa, autonomia administratibo eta finantzarioa eta bere zereginetan jarduteko erabateko gaitasuna du.

Osasun Publikoaren Legearen 50.4 artikulua dio legeak berak, haren estatutuak onartzeko dekretuak eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak arautzen dutela Osasun Publikoaren Euskal Institutua, eta haren Azken Xedapenetako Bigarrenak, berriz, dio dekretu hau onetsi beharra dagoela.

Institutuaren gobernu-, partaidetza- eta aholkularitza-organoak eta egitura organikoa arautu beharko ditu dekretu honek, Osasun Publikoaren legearen esparruan. Indarrean hasteko unean erdietsiko du Osasun Publikoaren Euskal Institutuak nortasun juridikoa.

## **3.- Egin nahi den arau-proiektuaren xedeak:**

Eusko Jaurlaritzan osasunaren gaineko eskumena duen sailari dagozkion ekintza, prestazio eta zerbitzuen multzoa osorik eskaintzeko helburuaz sortu da Osasun Publikoaren Euskal Institutuaren, horretarako Osasun Publikoaren Legeak esleitu dizkion zereginak gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak bateratuz.

Dekretu-proiektu honen helburua da azaroaren 30eko Euskadiko Osasun Publikoaren 13/2023 Legeak sortutako erakundea konfiguratzea, haren VI. Tituluan 53. artikulua esleitu zizkion zereginak eraginkor gauzatzeko, hauek, hain zuzen ere:

- a) Goi-zuzendaritza gauzatzea, antolaketa operatiboa ezartzea, lanerako barne-sistemak zehaztea eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun publikoko politikak

koordinatzea, bai eta arlo horretako Estatuko, Europako eta beste esparru zabalago batzuetako politikekin koordinatzea ere.

b) Eusko Jaurlaritzak osasun publikoaren arloan dituen eskumenak planifikatzea eta kudeatzea.

c) Zuzendaritza, bultzada, koordinazioa eta lankidetzak osasun publikoaren arloko politika publikoak kudeatzeaz arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako eta beste administrazio publiko batzuetako organoekiko, sektoreartekotasunaren eta «osasuna politika guztietan» printzipioetatik abiatuta, bai eta gaian eskumenak dituzten beste administrazio publiko batzuetako organoekiko koordinazioa eta lankidetzak ere

d) Osasun publikoa bultzatzeko sektore-, biztanleria- edo toki-politikak definitzea eta proposatzea.

e) Gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-baldintzak sortzera bideratutako ekintzak sustatzea, osasunaren aldeko giroak bultzatzeko eta osasun publikoan eta indibidualean izan daitezkeen eragin negatiboak arintzeko.

f) Osasun Publikoa Zaintze Sarea gidatzea.

g) Eusko Jaurlaritzari eta beste erakunde batzuei laguntzea osasun publikoaren arloan.

h) Euskadiko Osasun Planaren osasun-helburuak proposatzea, plana egiten parte hartzea, bai eta plana gauzatzeko estrategietan, jarraipena egiteko adierazleetan eta betetze-mailei buruzko ebaluazio-txostenak egiten ere. Era berean, osasun publikoaren arloko plangintza-tresnak gauzatzea eta proposamenak egitea.

i) Osasun publikoko aurrekontua egikaritzea.

j) Proposamenak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak lege honetan ezarritako konpromisoei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren aurrekontuei eta kredituei buruz.

k) Krisi-, osasun publikoko larrialdi- eta pandemia-egoeretarako prestatzea eta halakoei aurrea hartzea, bai eta herritarren osasunerako arriskutsuak diren egoera horien aurkako erantzuna koordinatzea eta kudeatzea ere, egoera horien aurrean mobilizatzen diren administrazioen baliabideekin koordinatuta, Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatzea eskatzen duten haietan parte hartzea barne. Era berean, osasunaren babesa zuzenduko du, jarduera programatuen bidez.

l) Osasunaren determinatzaileei eta gaixotasunei buruzko prebentzio-politikak zuzentzea eta lehenestea, zoonosiei eta goraka doazen gaixotasunei buruzkoak barne.

m) Lege honetan definitutako osasun publikoko prestazioetatik, toki-entitateei ez dagozkienak edo eskuordetu ez direnak betetzea.

n) Lege honetan aurreikusitako Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua zuzentzea, bultzatzea eta haiei laguntza teknikoa ematea. Era berean, parte hartzeko beste organo batzuei laguntzea, hala eskatzen dutenean, osasun publikoaren arloan.

o) Osasun publikoaren arloko proposamenak eta gomendioak egitea osasun-arloan eskumena duen sailari, Osakidetzari, Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde batzuei, toki- eta foru-erakundeei, entitate pribatu eta gizarte zibilaren ordezkari direnei, bai eta zuzenean gizarte zibilari ere. Komunikazioa egiari lotua, esanguratsua eta egokia izan dadin zainduko du.

p) Lege honetan esleitzen zaizkion eginkizunekin lotutako txostenak egitea.

q) Politika guztiek osasunean duten eragina ebaluatzeko mekanismoak ezartzea.

r) Eusko Jaurlaritzak osasun publikoaren arloan ezartzen dituen laguntzak kudeatzea.

s) Profesionalen prestakuntza eta osasun publikoko ikerketa bultzatzea eta sustatzea, organo arduradunekin, unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin lankidetzan.

t) Koordinatzea lan-arloko segurtasun-, osasun-, higiene- eta ingurumen-politikak kudeatzeko ardura duen Eusko Jaurlaritzako organoarekin, bai eta laneko osasuna zaintzeko eta babesteko politikak eta jarduerak ere.

u) Adikzioen arloko euskal politika integrala zehaztea; sailarteko eta erakundearteko jarduerak bultzatzea arlo horretan, inplikaturako sektore-eremuekin lankidetzan; eta adikzioak prebenitzeko eta arriskuak eta kalteak murrizteko programak eta ekimenak bultzatzea eta haiei eustea.

v) Euskadiko Osasun Publikoko Laborategia zuzentzea eta kudeatzea.

w) Osasun-agintaritza eta zehatzeko ahala egikaritzea, lege honetan eta aplikatzekoak diren beste arau batzuetan ezarritakoaren arabera.

x) Lege honek eta gai honetan aplikatzekoa den beste legeriak esleitutako beste edozein eginkizun.

Prestatu nahi den dekretuak Osasun Publikoaren Euskal Institutuari dagozkion ikuspegi guztiak arautuko ditu: jardun-arloa, egoitza, hizkuntza-araubidea, jarduteko printzipio orokorrak, zereginak, gobernu- eta gidaritza-organok, egitura organikoa, beste organo administrazio publikoekiko elkarlana, langileen araubidea eta ekonomia-araubidea.

**4.- Bestelako aukera arautzaileak eta ez-arautzaileak:**

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik ikusten.